


Iritzi Generoak

2019-2020



Bernardo Atxaga

Etxeak eta hilobiak



9. GAIA:

Literatur kritika

9.1. Definizioa

9.2. Literatur kritika: literatura eta kazetaritza

9.3. Literatur kritika: egitura

9.4. Literatur kritika: estiloa

9.5. Literatur kritika: idatzi aurreko urratsak



9. GAIA:

Literatur kritika

9.1. Definizioa


Literatur lanen eduki zein formak ikertzeko proposatutako metodoa.

-Kazetariak ez du liburuaren analisi sakona egiten inolaz ere. Bere xede nagusia:

literatur lan jakin bati buruz informazioa, balorazioa eta orientazioa eskaintzea irakurleari.

**FAKIRRAREN
AHOTSA**

HARKAITZ CANO



narratiba
Susa

9. GAIA:

Literatur kritika

9.2. Literatura eta kazetaritza

■ Kazetaritza Berria

- 60. hamarraldian sortzen da AEBetan.
- Tom Wolfe idazle eta kazetari estatubatuarra da mugimenduaren ordezkariarik ezagunena.
- Literatur moldeak kazetaritza idazkeran txertatzen saiatu zen.
- Ezaugarriak: ikerketa, errealismo handia, lehen pertsonaren erabilera, deskribapen zehatzak, ironia...



9. GAIA:

Literatur kritika

9.2. Literatura eta kazetaritza

■ Kazetaritza Berria

-Ordezkaririk ezagunenak:

Truman Capote,
Tom Wolfe, Norman Mailer,
Gay Talese, Rex Reed,
Hunter S.Thompson,
Joan Didion,
Terry Southern.

Joan Didion



9. GAIA:

Literatur kritika

9.2. Literatura eta kazetaritza

■ Kazetaritza Berria Latinoamerikan

-*Operación Masacre* (1957).

-Rodolfo Walsh argentinarrak gertakari bati buruzko liburu bat idatzi zuen literatura baliabideak erabiliz Truman Capotek *Odol Hotzean* idatzi baino ia hamarraldi bat lehenago.

-1956an, diktaduraren aurkako altxamendu bat izan zen Argentinan eta porrot egin zuen. Hamabi pertsona atxilotu eta bost fusilatu zituzten. Walshek kasua ikertu zuen eta bere liburuaren bitartez bertsio ofiziala gezurtatu zuen.



Rodolfo Walsh
Operación Masacre
Introducción de Leila Guerriero



9. GAIA:

Literatur kritika

- *Boom* latinoamerikarra, kazetaritza berriaren akuilu.
- 60. hamarraldian jazotzen da eta Latinoamerikako literatura irauli egiten du. Literatura abangoardista, formalki berritzailea eta izaera politiko handikoa.

Idazlerik esanguratsuenak:

GABRIEL GARCÍA MÁRQUEZ

JULIO CORTÁZAR

MARIO VARGAS LLOSA

CARLOS FUENTES

Julio Cortázar





Vargas Llosa



García Márquez



Cortázar



Fuentes

-Kazetaritza berri latinoamerikarra:

***Kazetaritza independentea eta konprometitua. Injustizia salatzen du.**

***Objektibotasuna ez da xede, ahulenen alde jartzen baita.**

***Egunerokotasuna, istorio xumeak dira nagusi kazetaritza testuetan.**

***Literatur teknikak bereganatzen ditu eta ikerketak garrantzi handia lortzen du.**



GABRIEL GARCÍA MÁRQUEZ

Literatura:

Kolonbiarra, errealismo magikoa ezagun egin zuen.

Literaturako Nobel Saria jaso zuen 1982an.

Ezkertiarra. Fidel Castroren lagun mina.

Libururik ezagunenak:

Cien años de soledad,

Crónica de una muerte anunciada,


El amor en los tiempos del cólera...

Kazetaritza:

Zuzenbide ikasketak egin zituen arren, kazetaritzan murgildu zen oso gazte zela.

Hainbat egunkaritan lan egin zuen eta ehunka erreportaje, kronika eta zutabe idatzi ditu. Hastapenetan, zinema kritika ere egin zuen *El espectador* kazetan.


Fundación Nuevo Periodismo Iberoamericano sortu zuen 90eko hamarraldian.



-Kazetaritza lanik esanguratsuenak:

**Relato de un naufrago.*

**Noticia de un secuestro.*



Contemporánea

PREMIO NOBEL DE LITERATURA

**GABRIEL
GARCÍA
MÁRQUEZ**

Relato de un naufrago

que estuvo diez días a la deriva en una balsa sin comer ni beber, que fue proclamado héroe de la patria, besado por las reinas de la belleza y hecho rico por la publicidad, y luego aborrecido por el gobierno y olvidado para siempre

DEBOLSILLO

9. GAIA:

Literatur kritika

9.3. Literatur kritika: egitura

TITULUA

Laburra, irudimentsua eta kritikaren mamia dakarrena.

FITXA

Izenburua.

Idazlea.

Argitaletxea.

Urtea.

Orrialde kopurua.



9. GAIA:

Literatur kritika


9.3. Literatur kritika: egitura

TESTUA

-Egilea:

- *Belaunaldi edo literatur mugimendu batean kokatu.
- *Aurreko idazlanekiko harremanik ote duen zehaztu.
- *Bere literatur eraginak nabarmendu.

Joseba Sarrionandia
eta Itxaro Borda



9. GAIA:

Literatur kritika

9.3. Literatur kritika: egitura

- Argumentua: istorioaren hari nagusia ematea.
- Narrazioa:
Egitura: lineala / *flashback* modukoa / ikuspegi anitzekoa.
- Pertsonaiak: biribilak (bilakaeradunak) / lauak.
- Interpretazioa:
narrazioak bere baitan dakartzan gai nagusiak interpretatu.
- Balorazioa: epaia eman, argudioak eskainiz.

Iratxe Retolaza



9. GAIA:

Literatur kritika

9.4. Literatur kritika: estiloa

- Hitz ulerterrazak,
esaldi eta paragrafo laburrak,
teknizismorik gabeko idazkera.
- Hortaz, estilo argia, irakurterraza baina jaso.
- Dena dela, literatura hizpide denez gero,
literatur erreferentziak eta baliabideak ere
erabil daitezke.



9. GAIA:

Literatur kritika

9.5. Literatur kritika: idatzi aurreko urratsak

1. **Liburua irakurri aurretik, dokumentatu.**
Egileari buruzko datuak bildu, haren aurreko lanak zeintzuk izan ziren ezagutu, liburuan lantzen den gai berbera duten besteak aintzat hartu...
2. **Liburu osoa irakurri.**
Irakurri ahala, paragrafoak azpimarratu gero erabiltzeko.
3. **Puntu garrantzitsuak zeintzuk diren erabaki eta zirriborro bat egin.**
4. **Testuaren erredakzioa.** Aipatu urrats guztiak eman ondoren, testua idatzi.

